



Euskal Herriko
Unibertsitateko Urrezko
Domina Gipuzkoako
Foru Aldundiari emateko
ekitaldia

Acto de concesión de
la Medalla de Oro de la
Universidad del País Vasco
a la Diputación Foral de
Gipuzkoa

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskal Herriko
Unibertsitateko Urrezko
Domina Gipuzkoako
Foru Aldundiari
emateko ekitaldia

Acto de concesión de
la Medalla de Oro de la
Universidad del País Vasco
a la Diputación
Foral de Gipuzkoa



Aurkibidea | Índice

1. Aktaren irakurketa, Aitor Zurimendi, idazkari nagusi jaunaren eskutik

Lectura del acta a cargo del secretario general, Aitor Zurimendi..... 07
2. Eneko Agirre, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aitabitxi jaunaren laudatioa.

Laudatio a cargo del padrino de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Eneko Agirre 13
3. Markel Olano, Gipuzkoako diputatu nagusiaren replicatioa.

Replicatio del diputado general de Gipuzkoa, Markel Olano 23
4. Unibertsitateko errektore Eva Ferreira andrearen mintzaldia.

Intervención de la rectora de la universidad, Eva Ferreira 29













Aktaren irakurketa,
Aitor Zurimendi,
idazkari nagusi jaunaren eskutik.

Lectura del acta
a cargo del secretario general,
Aitor Zurimendi.





AKTA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN URREZKO DOMINA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI EMATEARI BURUZKOA.

Unibertsitatearen domina Gobernu Batzarrak 1983ko apirilaren 21ean hartutako erabakiaren arabera eman ohi du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, «erakunde honek bere esker ona adierazi nahi dienenean edozein herrialdetako pertsona fisiko edo juridikoei, pribatu zen publikoei, unibertsitateari eskaini dizkieten zerbitzu apartengatik edota zientzien, letren edo arteen alorrean burutu duten lan nabarmengatik». Unibertsitatearen domina hau urrezkoa edo zilarrezkoa izan daiteke.

Zentzu horretan, Gobernu taldeak proposatuta, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko bilkuran UPV/EHUren Urrezko Domina Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea onetsi zen, Unibertsitate hau sortu zenetik erakunde horrekin izan dugun elkarlan biziagatik esker onaren adierazgarri

Azken urteotan, bereziki, elkarlan horrek unibertsitateko azpiegiturak berritzea eta berriak sortzea ekartzeaz gain, zientziako eta ikerketako jarduerak bultzatu ditu, ezagutzaren transferentzia bultzatu du Unibertsitateetik gizartera, eta kultura unibertsitateko kideengana eta, oro har, Gipuzkoako gizartera zabaltzea sustatu.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Gipuzkoako Foru Aldundiak Ibaetako Campusa garatzeko eman duen laguntza finantzarioa, hasiera-

ACTA DE CONCESIÓN DE LA MEDALLA DE ORO DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA A LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.

La Medalla de la Universidad, instituida en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por Acuerdo de la Junta de Gobierno de 21 de abril de 1983, es «expresión del reconocimiento de la Institución a las personas físicas o jurídicas, privadas o públicas, de cualquier nacionalidad, que hayan prestado servicios extraordinarios a la misma o se hayan destacado en el cultivo de las ciencias, de las letras o de las artes», pudiéndose otorgar en las modalidades de oro o de plata.

En este sentido, a propuesta del equipo de Gobierno, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU en su sesión de 24 de mayo de 2022, aprobó la concesión a la Diputación Foral de Gipuzkoa de la Medalla de Oro de la UPV/EHU, como expresión del reconocimiento a la intensa colaboración que esta institución ha venido prestando desde la creación de esta Universidad

En los últimos años especialmente esta colaboración no sólo se ha concretado en la renovación y creación de nuevas infraestructuras universitarias, sino que también ha impulsado la actividad científica e investigadora, y ha promovido la transferencia del conocimiento desde la Universidad a la sociedad y la extensión cultural a la comunidad universitaria y a la sociedad guipuzcoana en general.

No podemos dejar de resaltar la colaboración financiera prestada por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo del

hasieratik hainbat hitzarmen sinatuta 1988az geroztik. Finantzaketa horri esker, Ibaetako Campusaren lehen eta bigarren faseak urbanizatu ahal izan dira, eta Joxe Maria Korta eta Carlos Santamaría ikastegiak eraiki dira. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak doan laga zion UPV/EHUri, 1998ko maiatzaren 25ean, mugaegunik gabe eta unibertsitaterako erabiltzeko, Europa plazan dagoen partzelaren gaineko hirigintza eskubideen titulartasuna, gaur egun Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren (2001ean inauguratu zen) egoitza dena eraiki ahal izateko. Horri esker, titulu gehiago eskaini ahal izan ziren, eta Arkitektura Teknikoaren eta Herri Lanetako Ingeniaritza Teknikoaren lerroak ireki.

Bestalde, 2010. urtetik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundia UPV/EHUrekin elkarlanean aritu da hainbat ekimenetan, hala nola «Gipuzkoa Aurrera» edo «ETORKIZUNA ERAIKIZ»; azken hori lankidetzaren estrategikotzat jotzen dugu bi erakundeen interesekoak diren jakintza arloetan ikerketa, prestakuntza eta azterlanak sustatzeko eta garatzeko, betiere azken helburua izanik Gipuzkoak etorkizuneko erronkei aurre egiteko duen gaitasuna indartzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskampus proiektuan ere laguntzen du; 2010eko Nazioarteko Bikaintasun Campusaren deialdian hautatu zuten proiektu hori. Proiektu horren helburua UPV/EHU Europako ardatz atlantikoaren erreferente bihurtzea da, irakaskuntzaren, zientziaren eta teknologiaren arloei dagokienez, eta, aldi berean, Euskadiren eraldaketa ekonomikoaren eragile ere izatea, Foru Administrazioarekin interes komuna izanik.

Baina Gipuzkoako Foru Aldundiak UPV/EHUren Gipuzkoako Campusean proiektu berriak eta azpiegitura berriak eraikitzen laguntzeaz gain, Unibertsitatearekin batera elkarlanean eta lankidetzan jarduten du ohiko unibertsitate jardunean, hainbat arlotan.

Aldundiak urteak daramatza Teknologia eta Ezagutza merkatura transferitzeko prozesuetan laguntzen. Horretarako, Enpresa Berritzaileak eta/edo Oinarri Zientifiko-Teknologikoa dutenak eta ezagutza arlo

Campus en Ibaeta, desde sus inicios materializada con la firma de diversos convenios desde el año 1988. Esta financiación ha permitido la urbanización primera y segunda fase del Campus de Ibaeta, y la construcción de los actuales Centros Joxe Maria Korta y Centro Carlos Santamaría. Asimismo, la Diputación Foral de Gipuzkoa cedió gratuitamente a la UPV/EHU el 25 de mayo de 1998, por plazo indefinido y para uso universitario, la titularidad de sus derechos urbanísticos sobre la parcela sita en la plaza de Europa, para posibilitar la construcción de la actual sede de la Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa que fue inaugurada en 2001, permitiendo con ello ampliar la oferta de titulaciones con la apertura de las líneas de Arquitectura Técnica y de Ingeniería Técnica de Obras Públicas

Por otro lado, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido colaborando con la UPV/EHU en diferentes iniciativas desde 2010 como son «Gipuzkoa Aurrera» o «ETORKIZUNA ERAIKIZ» la cual supone una colaboración estratégica para la promoción y desarrollo de la investigación, formación y estudio en áreas de conocimiento cuyo interés es compartido por ambas instituciones siendo el objetivo último fortalecer la capacidad de Gipuzkoa para hacer frente a sus retos de futuro

También colabora la Diputación Foral de Gipuzkoa en el proyecto Euskampus, seleccionado en la convocatoria 2010 de Campus de Excelencia Internacional. Este proyecto tiene como objetivos convertir a la UPV/EHU en un referente docente, científico y tecnológico del eje atlántico de Europa, siendo a la vez inductor de la transformación económica del País Vasco, interés común con la Administración Foral.

Pero la Diputación Foral de Gipuzkoa no solo presta su apoyo al Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU en la construcción de nuevas infraestructuras y proyectos, sino que colabora y coopera con la Universidad también en la ordinaria actividad universitaria en sus distintas facetas.

La Diputación lleva años colaborando en los procesos de Transferencia de Tecnología y Conocimiento al mercado vía la Creación de Empresas Innovadoras y/o de Base Científico-Tecnológica y empresas intensivas en conoci-

espezifikotan oinarritutako enpresa intentsiboak sortzen ditu Unibertsitatearen barruan, ezagutza hori gizartera helarazteko eta, horren ondorioz, gizartea aberasteko, hainbat programaren esparruan, hala nola Txekintek/Ekintzaile programaren esparruan.

Gainera, Ekonomia Zirkularraren arloan hainbat Gela-Enpresa sortzen eta garatzen ere laguntzen du Aldundiak, eta hainbat master eta programa garatzen ere lagundu izan du, hala nola GARAITUZ. Programa horren helburua egoera ahulean dauden Gipuzkoako ETEen lehiakortasuna hobetzea eta jasagarritasuna bermatzea da.

Azkenik, Foru Administrazioak unibertsitate jardunari ematen dion laguntzaren beste adibide batzuk aipatzearen, unibertsitateko katedrak aipatuko ditugu, besteak beste, Komunikazioa eta Hezkuntza Balioak Katedra, Mikel Laboa Katedra eta Pentsamendu Garaikiderako «Joxe Azurmendi» Katedraren proiektua.

Ondorio gisa, esan gabe doa Gipuzkoako Foru Aldundiak berebiziko laguntza ematen diola Gipuzkoako Campusari, bereziki, eta UPV/EHUri, oro har, unibertsitateko bizitzaren alderdi guztietan; horrenbestez, Bikaintasuneko Kolaboratzaile izaki, haren aparteko zerbitzuak aitortu eta eskertze aldera, UPV/EHUREN Urrezko Domina jasoko du.

Nik, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiak, horren guztiaren fede ematen dut, Donostian, 2022ko urriaren 14an.

miento específico en el seno de la Universidad para su traslado a la sociedad con el consiguiente enriquecimiento de ésta en el marco de diferentes programas, como el programa Txekintek/Ekintzaile.

Además, la Diputación colabora en la creación y desarrollo de diversas Aulas-Empresa, en el ámbito de la Economía Circular y ha colaborado, también, en el desarrollo de diversos másteres y programas como GARAITUZ, cuyo objetivo es mejorar la competitividad y asegurar la sostenibilidad de las pymes de Gipuzkoa en situación de vulnerabilidad.

Finalmente, entre otros apoyos que presta la Administración Foral a la actividad universitaria, hay que señalar el apoyo a diversas cátedras universitarias, entre otras, la Cátedra de Comunicación y Valores Educativos, la Cátedra Mikel Laboa y el proyecto de Cátedra de Pensamiento Contemporáneo «Joxe Azurmendi».

En conclusión, es evidente que el gran apoyo que presta la Diputación Foral de Gipuzkoa al Campus de Gipuzkoa, en particular y, a la UPV/EHU en general, en los múltiples aspectos de la vida universitaria, la convierten en una Colaboradora de Excelencia cuyos servicios extraordinarios merecen ser reconocidos con la concesión de la Medalla de Oro de la UPV/EHU.

Como Secretario General de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea doy fe de todo ello en Donostia, a 14 de octubre de 2022.

Eneko Agirre,
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
aitabitxi jaunaren
laudatioa.

Laudatio
a cargo del padrino
de la Dlputación Foral de GIpuzkoa,
Eneko Agirre.





Errektore andrea,
Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusi
jauna,
idazkari nagusi jauna,
agintariak,
unibertsitateko kideak,
etorritako guztiak,

egun on.

Lan gutxi egongo dira gaurkoa bezain esker-
onekoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laudatioa egitea, eta eskerrak eman nahi
dizkiot errektoreari eta bere taldeari –
tartean Agustin Erkiziari, Gipuzkoako
Campuseko errektoreordeari - enkargu
honegatik.

Gure gizarteak unibertsitate publiko
konprometitu eskatzen du, konprometitu
gizarte mailako erronkekin, bertako
kulturarekin eta garapen ekonomiko
jasangarriarekin. Berezko tresnak ditu
unibertsitateak horretarako, jakintza
adar guztietan prestakuntza, ikerketa
eta ikertutakoaren transferentzia.
Horretarako ezinbestekoak dira gaitasun
pertsonalak, talde-lana, erakundearen
antolakuntza baliabideak eta azpiegiturak,
baina baita ere gizartearekin elkarlana,
era zabalean hartuta, ezin baita hori
dena egin unibertsitate isolatu batean.
Elkarlana, zorionez, bi norabidetan doa,
unibertsitateak asko jasotzen du gizartetik,
baina unibertsitateak ere ekarpen sendoa
egiten dio gizarteari. Harreman horretan
gakoak dira instituzioak, eta gure kasuan,
instituzioen artxipiela dugu, Eusko
Jaurilaritza, lurralde historiko bakoitzari
dagozkion aldundiak, eta udalak.

Zaila da Euskal Herriko Unibertsitateak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bidelagun
bezala egin duten ibilbide luzean beraien
artearen edukitako harremanak laburbiltzea.
Aldundiak Euskal Herriko Unibertsitateari
era sakonean lagundu dio, era ezberdin
askotan, ekintza txiki eta handiekin,
eta askotan oharkabea pasa daitezkeen
moduetan.

Horietako asko aipatu izan ditu idazkari
nagusiak, ziur nago egon direla gehiago,
eta laudatio honetan nire bizipenen
ikuspuntutik azpimarratuko ditut batzuk.

Como se ha señalado, las infraestructuras son
básicas para el progreso de la universidad.
Cuando comencé mis estudios, en los años 80,
para llegar a la Facultad de Informática había
que recorrer el camino de Comporta desde el
Antiguo, Keller a un lado, jabones Lagarto y
la fábrica de chocolate Suchard al otro. En la
avenida de Tolosa había marismas, caballos y
bosques. Tras cruzar por un puente se llegaba
a los edificios de Informática y Derecho. Ese era
el campus de Ibaeta... y como todavía no cono-
cíamos los campus extranjeros, creíamos que
los campus eran así.

Han pasado los años y el desarrollo del campus
es evidente.

Enseguida se construyó la Facultad de
Química, a la que siguieron las facultades y
escuelas de Arquitectura, Magisterio, Empresa,
Psicología, Filosofía y Educación, comple-
tando el campus universitario que hoy cono-
cemos. Destaca especialmente el apoyo de
la Diputación a la construcción de la Escuela
de Ingeniería, financiando buena parte del



equipamiento de los laboratorios del centro. También colaboró, entre otras instituciones, en la construcción del Centro Joxe Mari Korta y del Centro Carlos Santamaría, donde nos encontramos ahora.

Hoy en día tenemos prados, cafeterías, estudiantes, profesores y trabajadores charlando, pistas deportivas, residencias de estudiantes y una elegante biblioteca. Infraestructuras adecuadas para el desempeño de las funciones universitarias, pero más allá de ello, un lugar agradable y atractivo para fomentar la convivencia y estudiar, investigar y trabajar. Todo ello materializado con la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Gure gizarteak dituen erronken aurrean, gai sentikor eta premiazkoak lantzeko laguntza ere eman izan du Aldundiak. Adibide moduan, Arrakasta programa aipatu daiteke: Aldundiaren zaintzapean dauden gazteak programa honen laguntzaz ari dira ikasten gure unibertsitatean. Arrakasta urrats bat da aukera berdintasunaren eta hezkuntza inklusiboaren aldeko bidean. Era berean, aipatu nahiko nituzke, jakintza adar ezberdinetako bi aipatzearren, Esku-Hartze Psikosozialeko masterra edo Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberritze eta Kudeaketa masterra. Katedra berezituak ere badira, tartean Aldundiak lagundu eta sustatu dituen Komunikazio eta Hezkuntza Balioen Katedra, Mikel Laboa Katedra eta Joxe Azurmendi Pentsamendu Garaikideko Katedra; baita datorren astean

onartuko den Jose Miguel Barandiaranen katedra ere. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, Elias Querejeta Zentroa sortu zen, gure unibertsitateari atxikitakoa. Zinemaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko pentsamendu, ikerketa eta praktika esperimentalaren nazioarteko zentroa.

Irakaskuntza eta ikerkuntzari dagokionean, Aldundia 2020. urteaz geroztik unibertsitatearekin lankidetzan ari da zenbait unibertsitate enpresa gelak sortu eta garatuz. Horrela, aipagarriak dira ekonomia zirkularren inguruan sortutako hiru gela (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean) eta ziberseguritatearen inguruan Informatika Fakultatean sortutako gela.

Nire etxea aipatzen ari garela aipatu nahiko nuke Informatika Fakultatean jarri dugun Adimen Artifizialaren graduiko ikasleek hainbeste behar duten konputo ahalmen handiko kalkulu zentroa Aldundiaren laguntzari esker gauzatu dela. Aldundiarekin elkarlanean ere GovTech lantzen ari gara, hau da, digitalizazioak eta adimen artifizialak gobernuko egunerokoan nola lagundu dezakeen aztertzen. Bestalde, berriki antolatu dugun Gladys del Estal saria ere laguntzen du Aldundiak. Ingurune digitalean ari diren emakume gazte euskaldunak saritzea du helburu, erreferenteak sortuz eta arlo honetan emakumeen parte-hartzea sustatuz.

Aldundiak ikerketaren garapenean beso luzea eduki du 2010az geroztik. Hala nola «Gipuzkoa Aurrera» ikerketa sustatzeko ekimena abiatuz —gobernantza ereduari buruzko ezagutza teorikoan eta esperientzia aurreratuetan sakontzeko—, edo Gipuzkoako Lurralde Historiko eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Campuserako estrategikoak diren gaitan bi aldean ahaleginak uztartuz. 2016tik aurrera sinergia hori indartuz joan da «Etorkizuna Eraikiz» ekimenarekin, eta horren bidez lankidetzaren estrategikoa landu da bi erakundeek interesa duten jakintza arloetako ikerketa, prestakuntza eta azterlanak sustatzeko eta garatzeko, Gipuzkoak etorkizuneko erronkei aurre egiteko duen gaitasuna indartzeko helburuarekin. Honela, 2016. urteaz geroztik, 50 ikerketa-proiektu baino gehiago garatu dira, 30 ikerketa-talde eta 150 ikertzaile baino gehiagoren parte hartzearekin.

Gipuzkoako Foru Aldundia Euskampus proiektuko partaide ere bada. Proiektua Euskal Herriko Unibertsitateak, Tecnalia Corporación Tecnológica eta Donostia International Physics Center Fundazioak bultzatua da. Nazioarteko Bikaintasun Campuseko 2010.eko deialdian aukeratua izan zen. 2017. urtean Bordeleko Unibertsitatea sartu zen Euskampusen. Proiektuaren helburua Euskal Herriko Unibertsitatea Europaren Atlantiko aldean irakaskuntzaren, zientziaren eta

teknologiaren erreferente bilakatzea da, eta horrez gain, Euskal Herriaren aldaketa ekonomikoaren bultzatzaile izatea, eta Aldundiak ere badauka horretan interesik.

Baina lehenago ere eman izan ditu ikerketarako laguntzak Aldundiak. Nik, bere garaian eta jakin gabe, disfrutatu egin nituen, disfrutaturen zentzu zabalenean. Hirugarren mailako ikaslea nintzela, gerora Ixa ikerkuntza taldea izango zenak bekari bezala hartu ninduen, orain errektoreorde den Montse Maritxalarrekin batera. Euskararako analizatzaile morfologikoa eta zuzentzaile ortografikoa programatzen hasi ginen orduan, halakorik ez baitzegoen euskararako. 1988. urtea zen, eta Ixa taldeak Aldundiak ikerlari gazte eta talde berrientzat ematen zuen diru-laguntza jaso berria zuen, lehen proiektua. Sei urte beranduago Xuxen kalean zen, euskararako lehenbiziko zuzentzailea. Itzultzaile automatikoetan ikertzeko ere jaso genuen Aldundiaren laguntza urte horretan bertan. Kosta zen, baina 20 urte beranduago euskararako itzultzaile neuronalak denon eskutara dauzkagu.

Ikerkuntza bidean hastapenetan dauden ikerlariarentzat bere-biziko garrantzia izaten du lehenbiziko proiektu finantzatuak, baliabide horiek ezinbestekoak baitira ikerlari berriek bor-bor dituzten ideia berritzaileak garatzen eta gauzatzen hasteko. Ikerlari gazteen sormena





funtsezkoa da ikerkuntzak aurrera egin dezan. Eta hor egon zen Gipuzkoako Foru Aldundia. Are gehiago, 2013. urtean Anton Abbadia saria Ixa taldeari eman zion. Hortaz, nork daki Ixa taldea eta HiTZ Hizkuntza Teknologiaren Zentroa hemen egongo liratekeen Aldundiko proiektu deialdi horiek gabe.

Nire kasuan ere jaso nuen ikerlari gazteengana zuzendutako laguntza. Tesia bukatu eta Ixa barruan ikerkuntza lerro berria irekitzeko asmoarekin proposatu nuen proiektua. 2002 urtea zen, eta foru Aldundiaren deialdian lortu zuen finantzaketa. Aipatzekoa da, 20 urte eta gero, proiektu hartako ideiatan oinarritutako sistema Informatika Zerbitzuen Foru

Elkarteari gustatu zaiola. Laster izango dugu euskaraz ere badabilen bilatzaile neuronal esperimentalaldiko web orriko atal batean.

Ikusten den moduan, Aldundiak era askotan eta sakonetan, ekintza txiki eta handiekin, batzuetan ia oharkabean pasa daitezkeen moduetan, lagundu dio Euskal Herriko Unibertsitateari, eta Euskal Herriko Unibertsitateetik saiatu gara gizarteari laguntza hori itzultzen.

Eta azaldutako guztiagatik, Gipuzkoako Campuseko Batzarraren proposamenari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiari Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina ematea eskatzen dut.







Markel Olano,
Gipuzkoako diputatu nagusiaren
replicatioa.

Replicatio
del diputado general de Gipuzkoa,
Markel Olano.





Errektore anderea
Euskal Herriko Unibertsitateko kideak
Herri ordezkariak
Lagunak,

Egun on denoi,

Ohore bat da niretzat gaurkoan, Gipuzkoako diputatu nagusi bezala, ekitaldi honetan parte hartzea. Eta, zer esanik ez, Foru Aldundiaren izenean, Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina jasotzea.

Ez da ohikoa, izan ere, erakunde publiko batek errekonozimendua jasotzea bizi ditugun gara nahasi hauetan. Hori dela eta esanahi berezia du ekitaldi honek guretzat; erakunde ikuspegitik ohorez eta ilusioz jasotzen dugun oroigarria da gaurkoa.

Horregatik, hasteko, esker onezko hitzak egin nahi nituzke.

Irakurri izan dut, denboraren poderioz, oroitzapen bilakatzen dela esker ona. Baina, gainontzeko oroipenekin alderatuz, bihotzetik sortzen den sentimendua dela. Gerora ere, buruan gorde beharrean, bihotzean gordetzen den sentimendua.

Foru Aldundia osatzen dugun pertsona guztien izenean, beraz, eskerrik asko bihotz bihotzez.

Hitz hauek esatean, gainera, azken hamarkadetan gure erakunde lan egin duten foru langile eta ordezkari publiko guztiak izan nahi nituzke gogoan.

Unibertsitatearen sorreratik bertatik datorrelako Aldundiak campus honekin izan duen konpromisoa eta hartu-eman.

Harreman emankor horretan parte hartu duten pertsona denak ditugu gogoan.

Ez naiz asko luzatuko.

Zuen baimenarekin, baina, Gipuzkoarentzat eta, oro har, euskal gizartearentzat funtsezko irizten ditudan hiru ideia jorratu nahiko nituzke, labur bada ere. Eztabaida eta ezberdintasun oroz gaindi, guztion artean babestu eta indartu beharreko hiru gai dira, nire iritziz. Gure herriaren etorkizunerako funtsezko hiru ideia.

Lehena, zientzia eta arrazoimena

Gipuzkoak azken hamarkadetan lortu duen garapen sozio-ekonomikoaz hitz egitean, ezinbestekoa da azpimarratzea lehen mailako erakundeak dauzkagula hezkuntzaren eta ezagutzaren eremuetan. Horien artean nagusienetako bat, nagusiena ez bada, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Gure lurraldeak, Euskadi osoak bezala, hezkuntzaren eta jakintza zientifikoaren aldeko apustua egiten du. Horri esker, etenik gabe, aurrera egin dugu gizarte demokratiko, ireki eta aurreratu bat eraikitzeke lanean. Ibaetako campus hau aitzindari izan da ahalegin horretan: bertako fakultateak, gune akademikoak, berrikuntza eta ikerkuntza zentroak, horren lekuko.

Izan ere, gizarte moderno batek, zientziaren eta ezagutzaren bitartez, konponbide



partekatuak bilatu behar dizkie desafio konplexuei, arazo zahar eta berriei. Unibertsitatearen zeregina funtsezkoa da ahalegin kolektibo horretan.

Hil hala biziko gaia dugu honako hau. Izan ere, asmatzen ez badugu zientziaren eta arrazoimenaren alde egiten, balio horiek gizartean saretzen eta zabaltzen, etorriko dira muturreko populismoak, etorriko dira populismo xenofoboak, etorriko da autoritarismoa, eta kalte egingo diote demokraziari, bizikidetzaren demokratikoari berari.

Bigarren ideia: euskararen biziberritzea

Ukaezina da azken 40 urteotan gure hizkuntzaren normalizazioaren alde urrats benetan inportanteak eman ditugula. Aurrerapauso nagusi horietako asko, zalantzarik gabe, Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik etorri dira. Aldundia ere saiatu da bere ekarpena egiten, gainontzeko euskal erakundeekin batera.

Bidean trabak izan badira ere, eta badiraute ere, bagoaz aurrera. Euskarak milaka hiztun irabazi ditu, gaztetu egin da; baina erronka berriak ere sortu dira tartean, gainditu beharrekoak, nahitaez, biziberritzean aurrera egin nahi badugu.

Gaztelaniaz bizi den gazte jendea, euskaratik urrun sentitzen diren pertsonak, atzerritik gurera etorri direnak, lan mundu erdaldunean bizi direnak edota euskara hezkuntza eremura mugatzen dutenak. Badira euskarara eta euskal kulturara

hurbildu behar ditugun hainbat eta hainbat herritar. Gerturatze hori lortu gabe, ezinezko izango da gurean egiazko hizkuntza berdintasun bat gauzatzea.

Datu soziolinguistikoei erreparatzen badiegu, Gipuzkoa da lurralde euskaldunena. Abantaila dugu horretan, baina baita ardura ere. Gehiago egiteko eta arrisku handiagoak hartzeko aukera daukagu.

Ahalegin partekatu honetan ere elkarlanean jarduteko borondatea berretsi nahiko nuke, gaurkoan.

Hirugarren eta azken ideia nagusia: elkarlana

Gaur egun, aldaketa ekonomikoak, sozialak eta politikoak oso azkar ari dira gertatzen. Izugarri eragiten diote gure gizartearen izaerari, baina orobat sortzen dituzte errealitatea eraikitzeko baldintza eta denbora berriak. Hau da, azkar egokitzen ez diren komunitateek dekadentzia dute patu; eraldaketa azkarra eta sistemikoa egiteko gaitasuna duten herrialdeek, berriz, aurrera egingo dute, eta garapen ekonomikorako eta gizarte-kohesiorako baldintzak sortuko dituzte.

Gu ez gara bizi gizarte lasai batean, non denbora poliki-poliki igarotzen den; konplexutasun handiz eta oso azkar aldatzen den gizarte bat gara.

Testuinguru honetan, lankidetzazko gobernantza ardatz hartuta, elkarlanerako testuinguru berri bat garatu du azken bost urteotan Gipuzkoak: Etorrizuna Eraikiz.



Etorkizuna Eraikiz es un marco de colaboración entre instituciones, universidad, sociedad organizada y ciudadanía. El trabajo en común con la Universidad del País Vasco está siendo muy fructífera, también en esta iniciativa.

Pero, ¿por qué situar la colaboración en el núcleo de actuación de nuestras entidades, en tanto que instituciones públicas?

La globalización ha limitado considerablemente la capacidad de transformación de las estructuras políticas. El desarrollo de un pueblo o de una comunidad política está condicionado, más allá de las estructuras políticas, por otras estructuras y por muchos agentes económicos y sociales.

Se ha debilitado el carácter comunitario de nuestras sociedades y, por lo tanto, las condiciones de desarrollo y legitimación del espacio público no pueden basarse exclusivamente en estructuras públicas. Esta situación nos lleva a superar las condiciones de gobernanza clásica que hemos conocido en el pasado; a redefinir el espacio público incorporando estructuras públicas y sociales para ganar capacidad de transformación en las políticas públicas.

Horregatik guztiagatik, inoiz baino garrantzia handiagoa du elkarlanak gaur egun. Lankidetzaren ezinbesteko baldintza da ekonomia aurreratu bat garatzen jarraitzeko, gizarte babeseko egitura

berritzaileak lantzeko eta gure hizkuntzari bultzada berri bat emateko, besteak beste.

Ezinbesteko baldintza da, azken batean, gure garaiko desafio nagusiei arrakastaz aurre egiteko. Ezinbesteko baldintza, gure lurraldea gerora begira eraldatzen jarraitzeko.

Azken 40 urteotan fruitu garrantzitsuak eman ditu Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlanak. Oinarri sendo bat landu dugu, gainera, gaur egungo eta etorkizuneko desfioei arrakastaz aurre egiteko.

Urrezko Domina hau jasotzean, foru erakundearen izenean, lankidetzaren horren balioa goraiatu, berretsi eta azpimarratu nahi dut.

Jarrai dezagun elkarlanean ezagutza partekatzen, zientzia eta berrikuntza hauspotzen, kultura nahiz sormena lantzen, gizartearen partaidetzari bidea ematen.

Gipuzkoa eta Euskadi izan daitezten, aurrerantzean ere, komunitate sendo eta kohesionatu bat, ekonomia aurreratu batekin, gizarte desberdintasunei mugak jarriko dizkiena, eta bere hizkuntza eta kulturari leio berriak zabalduko dizkiena.

Eskerrik asko.

Unibertsitateko errektore
Eva Ferreira andrearen mintzaldia.

Intervención de la rectora
de la Universidad, Eva Ferreira.





Diputatu nagusi jauna;
alkate jauna;
Batzar Nagusietako presidente jauna;
aitabitxi jauna; mahaikideak; errektore
ohi jaunak; errektore ohi andrea; herri-
agintariok; gure unibertsitateko Klaustroko
kideak; jaun-andreok; lagunok.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina gure unibertsitatearen aitortza bat da, 1985. urtean sortu zena. Domina honen bidez, gure unibertsitateak bere esker ona adierazi nahi die erakundeei zein pertsoneri; bai, unibertsitateari egindako ekarpenengatik, bai, bereziki zientzien, letren edo arteen arloan izandako ibilbide oparoagatik.

Aurreneko domina Eduardo Chillida artista handiari eman genion 1985ean eta ordu ezkerotik, hainbat erakundek edo lagunek jaso dute.

Gaur, ordea, Gipuzkoako Foru Aldundiari egiten diogun aitortzaren bidez, nolabait, euskal unibertsitate publikoak elkarte honekin zeukan zor historikoa kitatzen du; gure unibertsitatea sortu zenetik aldundiarekin izan dugun elkarlan biziagatik esker ona adierazteko. Horregatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa eta beharrezkoa iruditu zaigu Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina Diputazioari ematea.

Edonola ere, aurrera jarraitu baino lehenago, Eneko Agirre irakasleari egin duen laudatioa eskertu nahi diot. Bere gorazarre horretan, ezin hobeto gogorarazi dizkigulako Gipuzkoako Foru Aldundiak gure

unibertsitateko Urrezko Domina jasotzeko dituen merezimenduak, gure idazkari nagusi jaunak lehen adierazi duenaren ildotik.

La vida de las instituciones transcurre a un ritmo muy distinto al de los seres humanos. En ellas, las decisiones se adoptan con la vista puesta en un futuro lejano y, por ello, pueden plantearse objetivos mucho más ambiciosos. Las personas contamos con las limitaciones de nuestra propia naturaleza: nos apremian las urgencias y la certeza de que el tiempo, nuestro tiempo, es breve y está realmente tasado.

Sin embargo, en el caso de instituciones centenarias como la Diputación Foral y en otras más jóvenes, como nuestra universidad, el tiempo adquiere otro sentido. Las decisiones que se toman, y el modo en que se toman, exigen determinación, ambición y la altura de miras que comporta asumir una responsabilidad distinta: comprender que trabajamos no sólo para la ciudadanía de hoy sino también para las próximas generaciones.

Si echamos la vista atrás, la mayoría de las personas que trabajaron en pro de la creación de la Universidad del País Vasco ya no nos acompaña. Este campus rinde tributo a la memoria de muchas de ellas, a través de distintos edificios: Manuel Agud Querol, Ignacio María Barriola o Carlos Santamaría (cuyo nombre lleva este centro). Muchos más hombres y muchas más mujeres fueron parte decisiva en la creación de esta universidad. Supieron mirar más allá de su tiempo, más allá de sus propias vidas. La generosidad de esa actitud todavía está rindiendo sus frutos: la Universidad del País Vasco. Y esos frutos, no



tengo la más mínima duda, seguirán madurando año tras año, más allá de los que estamos aquí.

Euskal Herriko Unibertsitatea tentsio eta kontraesan handiko testuinguru batean jaio zen, baita gure historiaren une lilugarri batean ere. Euskal gizartea sistema autoritario batetik ateratzen ari zen. Gauza asko egiteko zeuden. Gizartea pil-pilean, eremu guztietan ideia berriak, proiektu berriak eta erakunde berriak sortuko zituen sedimentua zen. Azken horien artean zegoen euskal unibertsitatea.

Garai hartan, Gipuzkoatik gogoeta mugimendu indartsuak egin ziren euskal unibertsitate publikoa sortzeko. Baina erakundeek, esan bezala, gizakien bizitzatik baino askoz harago begiratzeko pribilegioa dute. Halaber, apustu erradikalak, sakonak, egin ditzakete epe luzean, haien begiradak gizartearen belaunaldi urrunetara iritsi behar duelako.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha sido, en ese sentido, un ejemplo de apuesta firme y consecuente por una universidad como la nuestra. Hemos contado, desde su inicio, hace más de cuarenta años, con el resuelto respaldo de la Diputación foral.

No voy a repetir los muchos méritos que justifican la concesión de este premio. Ha quedado constancia en el acta leída por el secretario general y en la laudatio, más cercana, más personal, que nos ha ofrecido el profesor Eneko Agirre.

Pero ¿cómo describir, de forma evidente, la estrecha relación entre ambas instituciones?

La Medalla de Oro que hoy entregamos es una muestra de reconocimiento y gratitud a la Diputación de Gipuzkoa por parte de la Universidad pública de Gipuzkoa.

Si bien no hay un rincón de este territorio, no hay comarca que no se beneficie de la activi-

dad universitaria, también podemos decir que no hay ámbito de trabajo universitario que no haya recibido el apoyo de la Diputación Foral.

Un claro compromiso inversor en el campo de las infraestructuras, colaborando por ejemplo en la construcción de la Escuela de Ingeniería, en los centros Joxe Mari Korta y Carlos Santamaría; apoyando la investigación de excelencia, la constitución y desarrollo de aulas universidad-empresa; en el campo de la cultura, mediante el impulso de cátedras como la de Mikel Laboa o la de Joxe Azurmendi; o con iniciativas de fuerte contenido social como el programa Arrakasta. Y es una realidad la sólida alianza estratégica que ambas instituciones llevamos adelante en el seno de Etorkizuna Eraikiz.

Konpromisoa eta, aldi berean, laguntza iraunkorra, laguntza sendoa, laguntza

erabakigarria. Euskal Herriko Unibertsitateak Gipuzkoarekin duen konpromisoa bere nortasun sakonaren ondorioa da. Eta konpromiso hori indartu egin da urteetan zehar, gure diputazioaren laguntzari esker. Ziur nago egiteko dugun bidea egin duguna baino emankorragoa eta zirrargarriagoa izango dela. Bidearen tarte on bat bete dugu, bai, baina oraindik bide luzeagoa dugu aurretik.

Gipuzkoako Unibertsitate publikoak Gipuzkoako Diputazioari eman dion, eman diogun, Urrezko Domina gure esker onaren erakusgarri da.

Mila esker diputatu nagusi jauna, Aldundiaren laguntzagarri eta zorionak, gaurko sariagarri.

Zuei ere, mila esker arretagarri eta, mesedez, ez ahaztu: Eman Ta Zabal Zazue.









